



**OSALAN**

# Arrantza-ontzietan Lan Egiteko Segurtasun eta Osasun Baldintzei Buruzko Gidaliburua

Erakunde autonomiaduna  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Justizia, Lan eta  
Gizarte Segurantzza Saila  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social



**OSALAN**

# Arrantza-ontzietan Lan Egiteko Segurtasun eta Osasun Baldintzei Buruzko Gidaliburua

Erakunde autonomiaduna  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Justizia, Lan eta  
Gizarte Segurantzza Saila  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

## AURKIBIDEA.

---

<b>Aurkezpena.</b> .....	5
<b>Dokumentu honen aplikazioa.</b> .....	7
<b>1. atala:</b> 1216/1997 Errege Dekretuaren eranskina .....	13
I. eranskina: Arrantza-ontzi berriek bete beharreko gutxieneko arauak, segurtasun eta osasun alorrean.	
II. eranskina: Berriak ez diren arrantza-ontziek bete beharreko gutxieneko xedapenak, segurtasun eta osasun alorrean.	
III. eranskina: Salbamendurako eta bizirauteko baliabideei buruzko gutxieneko xedapenak, segurtasun eta osasun alorrean.	
IV. eranskina: Norbera babesteko ekipoei buruzko gutxieneko xedapenak, segurtasun eta osasun alorrean.	
<b>2. atala:</b> Lan istripuaren ikerketaren txostena. ....	31
<b>3. atala:</b> Arrantza-ontzietarako sarbideak. ....	35
Arrantza-ontzietarako sarbide egokiak.	
1. motako pasabidea	
2. motakoa pasabidea	
3. motako pasabidea	
4. motako pasabidea	
5. motako pasabidea.	
<b>4. atala:</b> Norbera babesteko ekipoak. ....	53
Norbera babesteko ekipoak (NBEak) hautatzeko eta erabiltzeko prozedurak.	
Norbera babesteko ekipoaren adibidea.	
<b>5. atala:</b> Larrialdietako betebeharren eta kontsignen koadroa .....	72
<b>6. atala:</b> Prestakuntzako eskuliburua . ....	79
<b>7. atala:</b> Arrantza-ontzietan lan egiten duten arrantzaleentzako gomendioak tetano eta difteriaren aurkako txertoa har dezaten .....	83
<b>8. atala:</b> Egonkortasunari buruzko informazioari dagozkion jarraibideak. ....	87
Arrantza-ontzietako segurtasunerako torremolinos-eko nazioarteko hitzarmenaren konferentziaren azken aktako 3. dokumentu erantsiko 3. gomendia	
<b>9. atala:</b> Adostasun-ziurtagirien ereduak, Salbuespen-ziurtagiria eta ekipo inbentarioa.....	93
<b>Egiaztatze-fitxa.</b> . ....	103
<b>Galdetegia laburbildurik.</b> .....	126

## Lizentzien orrialdea

---

Argitaraldia:	1.a, 2003ko otsaila
Ale kopurua:	500 ale
©	OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomiaduna
Internet:	<a href="http://www.osalan.net">www.osalan.net</a>
Argitaratzailea:	OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomiaduna
Azala marraztea:	Infotrés, S.L.
Fotokonposaketa:	Infotrés, S.L. Paseo de los Olmos, 14 - 2º dcha. 20016 Donostia-San Sebastián
Imprimaketa:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	84-95859-17-3
L.G.:	VI-60/03

## AURKEZPENA

---

Atsegin handiz aurkezten dut arrantza-ontzietan egindako lanean segurtasun eta osasun baldintzetan aritzeko Eskuliburua, OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak eta Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak, Itsas-arrantzetako Ikastetxe Politeknikoak, Alturako Armadoreen Elkarteak, Itsasbazterreko Armadoreen Elkarteak, Arrantzaleen Kofradien Federazioak, Itsasoko Institutu Sozialak, Alturako Arrantzaren Produktoreen Erakundeak, Bilboko Itsas Kapitaintzak, eta ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek elkarren artean egindako lankidetzaren emaitza.

Aurkezten dugun eskuliburuaren helburua arrantzaleek arrantza-ontzietan egiten duten lanaren baldintzak aztertzeke erabilgarria den tresna enpresari, arrantzale, prebentzioko teknikari, eta abarrei eskaintzea da.

Eskuliburu honek erreferentzia berria izan nahi du arrantzaleek arrantza-ontzietan egiten duten lanaren baldintzak analizatzeko. Ahalegin handia egin da, Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeak (LAPL) eta harekin lotuta dagoen araudiak –horren barruan, uztailaren 18ko 1216/1997 Errege Dekretuak, arrantza-ontzietan lanean aritzeko segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak zehazten dituenak– ezartzen dituzten baldintzak biltzeko eta laburtzeko orduan.

OSALANek, Plan estrategikoaren barruan, parte hartu du Kontseilu Nagusiak onartutako denboraldiko proiektuaren bitartez (P990103), aipatutako errege dekretuak adierazitakoa behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zehaztapen teknikoak aztertzeke eta horiek biltzen dituen eskuliburu bat egiteke, eta, era horretan, arrantzaleak arrantza-ontzietan lanean aritzeko baldintzak hobetzearen, egokiak diren prebentzio neurriak zehazteko.

Nire esker ona adierazi nahi diet eskuliburu hau egitea ahalbidetu duten pertsona guztiei, baita Talleres Mecánicos Erreka S.L., Import Arrasate S.A. eta Azti enpresetako langileei, emandako laguntzagatik.

**Iñaki Galdós Ibáñez de Opakua**  
*Osalaneko zuzendari nagusia*

## LAN-TALDEKO KIDEAK.

---

### Egileak:

Abancéns Izcue, Alvaro: Osalan.  
Andrés Olazagoitia, José Luis: Osalan.

### Kolaboratzaileak:

Campos Zubizarreta, Bartolo: Osalan.  
Mancisidor Lazcano, José María: Instituto Social de la Marina.  
Odriozola, Federico: Instituto Politécnico Marítimo Pesquero.  
Rivero Alonso, Antonio Eduardo: Instituto Social de la Marina.

### Lan-taldea:

Abancéns Izcue, Alvaro: Osalan.  
Agirre, Martín: Alturako Armadoreen Elkarte.  
Andrés Olazagoitia, José Luis: Osalan.  
Belaustegi, Leonardo: LAB.  
Cartón Anza, Juan Ignacio: ELA.  
Dárceles, Maite: Itsasbazterreko Armadoreen Elkarte.  
Errazkin Iribar, Agustín: Itsasbazterreko Armadoreen Elkarte.  
Garmendia, Miren: Arrantzale Kofradien Federazioa.  
Goenaga Lizaso, Beatriz: UGT.  
Golzarri Martínez, Antón: Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.  
González Prida Eizaguirre, José Ramón: CCOO.  
Leonard Retuerto, Fernando: Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.  
Mancisidor Lazcano, José María: Itsasoko Institutu Soziala.  
Marín Andrés, Luis Francisco: Alturako Arrantzaren Produktoreen Elkarte.  
Odriozola, Federico: Itsas-arrantzatarako Ikastetxe Politeknikoa.  
Olaizola, Esteban: Arrantzale Kofradien Federazioa.  
Rivero Alonso, Antonio Eduardo: Itsasoko Institutu Soziala.

### Esker onak:

Antón Zenarruzabeitia: Talleres Mecánicos Erreka S.L, Ondarroa - Bizkaia.  
Eduardo Uribesalgo eta Jokin Letona: Import Arrasate S. A., Arrasate -Gipuzkoa.  
Xabier Goirigolzarri: Azti, Sukarrieta - Bizkaia.  
Alfonso Calvo Sánchez: Osalan.  
Lehen sektoreko arrantzaleek tetanos eta difteriaren aurkako txertoa hartzeko proiektua burutu duen Osalaneko lantaldeari. Hona hemen kideak: Amaia Echeverria Zabala, Marife Marín Astobieta eta María Victoria Morente Gaita.  
Rosa Sancho Martínez, Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariorde.

### Koordinatzailea:

Isasi Gete, Fernando

## DOKUMENTU HONEN APLIKAZIOA

---

**Helburua:** Arrantza-ontzi berriek eta berriak ez direnek 1216/1997 Errege Dekretuak laneko segurtasun eta osasunerako ezarritako gutxieneko baldintzak betetzeko egokiturik dauden frogatzea.

**Eremua:** Arrantza-ontzi berriek eta berriak ez diren arrantza-ontzi guztiek bete beharrekoa.

**Denboraaldiak:** Berriak ez diren arrantza-ontziak 1216/1997 Errege Dekretuaren II. Eranskinean adierazitako laneko segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak bete beharko dituzte, beranduen jota, 2002ko azaroaren 23an.

### Definizioak:

"*Arrantza-ontziak*", Espainiako banderapean jarritako, edo Espainiako jurisdikzio osoaren barruan erregistratutako ontziak dira, merkataritza eraginetarako, arrainak edo itsasoko bestelako baliabide biziak harrapatzeko eta egokitzeko erabiltzen direnak.

"*Arrantza-ontzi berriak*", perpendikularren arteko luzera 15 metrokoa edo handiagoa duten arrantza-ontziak dira, 1995eko azaroaren 23an edo beranduago hasita, hurrengo baldintzetako batzuk betetzen dituztenak:

- 1) Ontzia egiteko edo eraldatze nabarmena egiteko kontratua izenpetu izana.
- 2) Ontzia egiteko edo eraldatze nabarmena egiteko, 1995eko azaroaren 23 baino lehenago kontratua izenpetuz gero, ontzia ematea data horretan hasi eta gutxienez hiru urte igaro ondoren gauzatzea.
- 3) Ontzia egiteko kontraturik ezean:
  1. Ontziaren gila instalaturik egotea.
  2. Edo ontzia egiten hasita egotea, eta dagoen bezala ontzi jakin bat dela ezagutu ahal izatea.
  3. Edo muntaia operazio bat hasita egotea, eta horretan, egiturarako balioetsitako material guztien 50 tona gutxienez erabili izana, edo material horien guztien ehuneko 1, bigarren balio hori lehenengoa baino txikiagoa bada.

"*Berriak ez diren arrantza-ontziak*", perpendikularren arteko luzera 18 metrokoa edo gehiagokoa duten arrantza-ontziak dira, arrantza-ontzi berriak ez direnak.

"*Ontzia*", arrantza-ontzi guztiak dira, berriak izan edo ez.

"*Arrantzalea*", ontzi batean lanbide jardueran aritzen diren pertsona guztiak dira, prestakuntza aldian eta apendizko daudenak barne; kanpo daude kaian atrakaturiko ontzietan lan egiten duten lehorreko langileak eta portuko gidariak.

"*Armadorea*", pertsona fisiko edo juridikoa da, bere ontziak edo besterenak erabili eta horiek ustiatzen dituenen jarduera hori egiten duen jarduera nagusia ez bada ere, nazioarteko ohi-  
turek onartutako edozein modalitatetan, baita ontzien erabileraren lagapena ere. Horrelakoetan, armadorea izango da ontziaren lagapena daukan edo ontzia erabiltzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

"*Kapitaina*", lanpostu hori betetzeko behar bezala trebaturik dagoen langilea da, ontziko buru dena, edo ontziak, lan egitean eta itsasoan, behar bezala funtzionatzeko ardura duena.

"*Torremolinosko Protokoloa*", Torremolinosko Protokoloa da, 1993koa, 1977ko Arrantza-ontzietako segurtasunari buruzko Nazioarteko Hitzarmenari dagokiona, eta horrekin lotutako aldaketa guztiak.

"*Ziurtagiria*", adostasun ziurtagiria da; horren bitartez frogatu egiten da ontziak segurtasun baldintzak betetzen dituela, ekainaren 18ko 1032/1999 Errege Dekretuak, 24 metroko edo gehiagoko luzera dauzkaten arrantza-ontziek bete beharreko segurtasun arauak zehazten dituenak, 6. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

"*Luzera*", kontrakoa adierazten ez bada, ehuneko 85ekoa den flotazioan batezbesteko gutxieneko altueraren guztizko luzeraren ehuneko 96 da, gila marratik neurtuta; edo, flotazio horretan, aurreko korastaren branka aldetik lema arimaren ardatzera dagoen luzera neurri hori handiagoa bada. Marra makurtuz proiektatutako ontzietan, luzera neurtzeko erreferentziako flotazioa proiektuaren flotazioaren paraleloa izango da.

"*Arrantzan egitea*", arrainak edo itsasoko bestelako baliabide biziak harrapatzea da –baliabide horiek ondoren egokituz edo egokitu gabe–, ur territorialetatik pasaia kaltegarerako esku-bidea edukitzeari utzi gabe, eta 200 miliako itsas zona eskusiboan nabigatzeko askatasunari kalterik egin gabe.

"*Onetsitako erakundea*", abenduaren 11ko 2662/1998 Errege Dekretuak, ontziak ikuskatzen eta peritatzen dituzten erakundeek eta Itsas Administrazioarekin lotutako jarduerak bete beharreko arau eta estandarren gainekoak, adierazitakoaren arabera, onetsitako edozein erakunde da.

"*Eskifaia*", ontzi batean lanean edo ontziarekin lotuta dagoen edozein jardueratan ari diren patroia eta gainerako langileek osaturiko multzoa da.

"*Lanerako bizkarra*", orokorrean, gehieneko zerbitzuko flotazioaren gainetik geratzen direnen artean, behetik hasita lehenengo bizkar osoa da, eta bizkar horretatik egiten da arrantzan. Bi bizkar oso edo gehiago daukaten ontzietarako, Administrazioak lanerako bizkar gisa onartu ahal izango du beherago dagoen bizkar bat, baldin eta bizkar hori gehieneko zerbitzu flotazioaren gainetik kokaturik badago.

"*Gainegitura*", lanerako bizkarrean kokaturik dauden egiturak dira, sabaidunak; ontziaren hegala batetik bestera hedatzen dira, edo daukaten alboko itxierako xaflaren (kroskoko baina barrurago dagoena) eta kroskoko xaflaren artean 0,04B-ko distantzia duena (B, ontziaren gehieneko zabalera da).



"*Gainegitura itxia*", hurrengo ezaugarriak dituzten gainegiturak dira:

- 1) ixteko trenkadak eraginkorrak dira, dituzten eraikuntzako ezaugarriei esker;
- 2) bertara iristeko, trenkadetan dauden irekierak urarekiko iragazgaitzak diren ateak eduki behar dituzte, bi aldeetatik eragin daitezkeenak, trenkadarekin beti baturik eta zulatuta ez dagoen trenkadaren erresistentzia bera eduki behar dutenak; eta
- 3) gainegituraren alboetako edo muturretako gainerako irekierak ixteko gailu eraginkorrak eta urarekiko iragazgaitzak eduki behar dituzte.

Zubia edo popako gaztelua ez dira gainegitura itxizat hartuko, baldin eta horien barruan, eskifaiak makina geletara eta bestelako lan tokietara iritsi ahal izateko, trenkadetako irekierak ez diren eta trenkadetako irekierak itxita daudenean erabilgarri dauden bestelako bitartekoez egindako sarrera-irteerak ez badauzkate.

"*Gainegiturako bizkarra*", lanerako bizkarren gaineratik 1,8 m-ko garaieran kokaturiko gainegitura, etxola edo bestelako egiturako sabaia eratzten duen bizkar osoa edo partziala da. Garaiera hori 1,8 m-tik beherakoa bada, etxola edo egitura horietako sabaia lanerako bizkartzat hartuko da.

"*Gainegituraren edo bestelako egituraren garaiera*", gainegiturako edo egiturako bizkarreko habeen goiko ertzaren eta lanerako bizkarreko habeen goiko ertzaren artean dagoen gutxieneko distantzia bertikala da.

"*Urarekiko iragazgaitza*" esamoldeak adierazten du, egitura osagarriak itsasoaren egoera edozein dela ere, eta jasatea proiektatu zen ur garaiera jasanda ere, ura edozein norabidetan sartzea eragozten duela.

"*Ontziaren kategoria eta botiketarako kutxa motak*": otsailaren 12ko 258/1999 Errege Dekretuak, itsasoko arrantzaleen osasunaren babeserako eta sorospen medikorako gutxieneko baldintzak arautzen dituenak, zehazten ditu kategoria horiek; apirilaren 23ko PRE/930/2002 Aginduak aldatu egiten du 258/1999 Errege Dekretuaren arabera ontzietan eraman beharreko botika kutxetako edukia.

Botika kutxen kategoria horiek zehazturik daude ontziak, arrantzan ari izaten direnean, kostatik egon ohi diren distantziaren arabera.

"A" kategoriako ontziak dira zona geografikoan mugaturik egon gabe nabigazioan edo itsasoko arrantzan ari direnak.

Hurrengo ontziek eraman beharko dute A motako botika kutxa –botika kutxa horren edukia PRE 930/2002 Aginduaren III. Ataleko I. Eranskinean zehazturik dago–:

- altura handiko edo eremu mugarik gabeko alturako arrantza-ontziek, edo Europako Komunitateko kideak ez diren herrietako arrantza tokietan arrantzan ari direnek.

- kostatik 150 milia baino gehiagoko distantzian arrantzan ari diren ontziek edota gertueneko portura iristeko nabigazioko 48 ordu baino gehiago behar dituztenek.

"B" kategoriako ontziak gertuen eta medikuntzaren ikuspegitik behar bezala ekipaturik dagoen portutik 12 eta 150 itsas milia bitartean nabigatzen ari direnak edo arrantzan ari direnak dira.

Hurrengo ontziek eraman beharko dute B motako botika kutxa –botika kutxa horren edukia PRE 930/2002 Aginduaren III. Ataleko II. Eranskinean zehazturik dago–:

- gertuen eta medikuntzaren ikuspegitik behar bezala ekipaturik dagoen portutik 12 eta 150 milia bitartean arrantzan ari diren arrantza-ontziek, portura iristeko nabigazioko 48 ordu baino gutxiago behar dituztenek.

"C" kategoriako ontziak dira barruko uretan (itsasadarrak, badiak, arradak) soilik nabigatzen edo arrantza egiten ari direnak, edo kostatik 12 itsas milia baino gutxiagoko distantzian dauden tokietan ari direnak, edo instalazio bakartzat aginteko zubia dutenak.

Hurrengo ontziek eraman beharko dute B motako botika kutxa –botika kutxa horren edukia PRE 930/2002 Aginduaren III. Ataleko III. Eranskinean zehazturik dago–:

- Espainiako kostatik 12 milia baino gutxiagotan arrantzan ari diren arrantza-ontziek, portubasetik kanpo 24 ordu baino gehiago ematen ez dituztenek.
- salbamendu txalupak.

Salbamendu baltsek PRE 930/2002 Aginduak IV. Atalean, II. Eranskinean zehaztutako hornidura eraman beharko dute.

### **Eskatu beharreko dokumentazioa:**

Agiri zerrenda ez oso sakona da eraman beharrekoa; ikuskatu bitartean, "check list" galde-egia bete behar duen pertsonak agiri horiek ikustea beharrezkoa edo komenigarria izan daiteke. Hurrengoak dira:

- Enpresa, arrantza-ontziaren izena, zenbaki edo letra bereizgarriak, matrikulako portua, luzera.
- Arriskuen ebaluazioa, prebentziorako eta babeserako neurriak.
- Ontziko arrantzaleen osasunean eraginen bat izan zezaketen eta itsasoan jazotako gertakizunei buruz egindako txostenak.
- Ontzian dauden instalazio eta gailuei buruzko argibide liburuak.
- Arrantzaleek eta beren ordezkariak daukaten prestakuntza eta arrantza-ontzietako laneko arriskuen prebentziorako egokiak diren neurriei buruz jaso duten informazioa (prestakuntza-aren eskuliburuak).
- Arrantzaleei egindako azterketa mediko zehatzak.
- Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipoak (NBEak) postuen arabera esleitzea; esleitutako/emandako NBEen zerrenda; NBEak eman eta itzuli diren ziurtatzen duen txartela.
- Onespen ziurtagiria, onespen ziurtagiriarekin batera ekipoaren inbentarioa.

- Nabigazio egunkaria.
  - Nabigatzeko baimenak.
  - 1216/1997 EDak araututakora egokitutako check-lista.
  - Itsas Kapitaintzak eta Ontzi Ikuskaritzak egindako ikuskapenei buruzko txostenak.
  - Botika kutxen ikuskatze liburua.
  - Ontzian emandako farmakoen erregistro liburua.
  - Itsasoko Institutu Sozialak argitaratutako ontzietako osasun gida.
- el Instituto Social de la Marina.



**OSALAN**

1. Atala:  
**1216/1997 Errege  
Dekretuaren  
eranskina**

**Erakunde autonomiaduna**  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Justizia, Lan eta**  
**Gizarte Segurantzza Saila**  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

# **I. ERANSKINA: ARRANTZA-ONTZI BERRIEK BETE BEHARREKO GUTXIENeko ARAUAK, SEGURTASUN ETA OSASUN ALORREAN**

## **AURRETIAZKO ADIERAZPENA**

Eranskin honetan aurreikusten diren betebeharrak lanaren edo jardueraren ezaugarriek, egoerak edo arrantza-ontzi berri batean egon litekeen edozein arriskuk hala eskatzen duten guztietan bete beharko dira.

### **1.- Nabigagarritasuna eta egonkortasuna.**

1.1.- Ontzia nabigagarritasun baldintza onetan mantendu beharko da, eta dituen helmugarren eta erabileraren arabera, behar bezalako ekipamendua eduki beharko du.

1.2.- Ontziaren egonkortasunaren ezaugarriei buruzko informazioak ontzian egon eta zain-tze lanetan ari diren langileentzat eskuragarria izan beharko du.

1.3.- Ontzi guztiek eduki beharko dute eta bere horretan mantendu beharko dute behar bezalako egonkortasuna, aurreikusitako zerbitzu baldintzetan. Kapitainak ontziaren egonkortasuna mantentzeko beharrezkoak diren arreta neurriak hartu beharko ditu. Ontziaren egonkortasunari buruzko jarraibideak zurrun bete beharko dira.

### **2.- Instalazio mekaniko eta elektrikoa.**

2.1.- Instalazio elektrikoa arriskurik ez sortzeko moduan proiektatu eta jarri beharko da, eta baita hurrengo baldintzak bermatzeko moduan ere:

a) Eskifaia eta ontzia elektrizitate arriskuetatik babesturik egotea.

b) Ontzia mantentzeko ekipamenduek, lan eta bizigarritasun baldintza arruntetan, eta larrialdietako energia elektrikoa sortzen duen iturriren batera jo gabe, behar bezala funtzionatzea.

c) Larrialdi egoera gertatuz gero, segurtasunerako funtsezkoak diren aparailu elektrikoek funtzionatzea.

2.2.- Larrialdietako energia elektrikoa sortzen duen iturria instalatu beharko da.

Irekiak diren ontzietan izan ezik, energia elektrikoaren iturriak makina gelatik kanpo instalaturik egon beharko du, eta elektrizitate instalazio nagusian sua sortuz gero, edo matxura gertatuz gero, gutxienez hiru ordutan ondoren zehazten diren instalazioek aldi berean funtzionatzea bermatzeko moduan diseinaturik egon beharko du, kasu guztietan:

a) Barneko komunikazio sistemak, su detektagailuek eta larrialdi egoeran beharrezkoak diren seinaleek.

b) Nabigazio argiek eta larrialdietako argiztapenak.

c) Irrati-komunikaziorako sistemak.

d) Suteen aurkako larrialdietako punpa elektrikoak, ontziko ekipamenduaren barruan baldin bada.

Larrialdietako energia elektrikoaren iturria metagailu elektrikoaren multzoa bada, eta energia elektrikoaren iturri nagusiak huts egiten badu, metagailu elektrikoaren multzo horrek era automatikoan konektaturik geratu beharko du larrialdiko energia elektrikoaren banatzen duen mahaiarekin, eta bermatu beharko du hiru ordutan, etenik gabe, bigarren paragrafoko lehenengo, bigarren eta hirugarren ataletan aipatzen diren sistemak elikatuz egongo direla.

Ahal den guztietan, elektrizitatea banatzeko mahai nagusia eta larrialdietako mahai uraren edo suaren eraginpean biak batera ez egoteko moduan instalatu beharko dira.

2.3.- Energia elektrikoaren banaketa mahaiak jarraibide argiak eduki beharko dituzte; fusibleen kutzak eta euskarriak aldizka berrikuskatu beharko dira, fusio intentsitate zuzena daukaten fusibleak erabiltzen ari direla ziurtatzeko.

2.4.- Metagailu elektrikoak kokaturik dauden konpartimenduak behar bezala aireztaturik egongo dira.

2.5.- Maiztasunez frogatu beharko dira, eta behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu beharko dira nabigaziorako gailu elektroniko guztiak.

2.6.- Zama-lanak egiteko ekipamendua aldizka frogatu eta aztertu beharko da.

2.7.- Trakzio mekanismoaren osagarri guztiak, baita zama-lanetako mekanismoarenak eta antzekoak diren ekipo guztien mekanismoenak ere, behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu behar dira.

2.8.- Ontzian, hozteko instalazioak eta aire konprimituaren sistemak egonez gero, behar bezala mantendu beharko dira, eta aldizka berraztertu.

2.9.- Gas astuna erabiltzen duten sukaldako aparailuak eta elektrotresnak ondo aireztatutako espazioetan bakarrik erabili beharko dira, eta zaindu egingo da, arriskutsua den gas metaketa gerta ez dadin. Gas sukoiak eta bestelako gas arriskutsuak dauzkaten zilindroetan argi eta garbi adierazita egongo da zer eduki dagoen horien barruan, eta bizkar irekietan metatuko dira. Zilindro horiekin lotutako balbula, presio erreguladore eta hodiak babesturik egongo dira edozerk honda ez ditzan.

### **3.- Irrati-komunikazioaren instalazioa.**

Irrati-komunikazioaren instalazioa prestatuz egongo da edozein unetan kostako edo lurreko estazio batekin gutxienez harremanetan jartzeko, irrati uhinak zabaltzeko baldintza arruntak kontuan hartuta.

#### **4.- Larrialdietako bide eta irteerak.**

4.1.- Larrialdietako bide eta irteera gisa erabil daitezkeen bide eta irteerak beti egongo dira libre; horietara iristea erraza izango da, eta ahalik eta era zuzenean eraman behar dute goiko bizkarrera edo segurtasun gune batera, eta hortik salbamendu ontzietara, hartara, arrantzaleak lan eta alojamendu tokietatik azkartasunez eta segurtasun handieneko baldintzetan irten daitezten.

4.2.- Larrialdietako bide eta irteera gisa erabil daitezkeen bide eta irteera kopurua, horien banaketa eta neurriak egokituta egongo dira lan tokietako eta alojamenduetako erabilerara, ekipamendura eta neurrietara; era berean, egokituta egongo dira leku horietan egon daitezkeen pertsonen gehieneko kopurura. Larrialdietako irteera gisa erabil daitezkeen eta itxita mantentzen diren irteerek larrialdi egoeran edozein langilek edo salbamendu taldeek erraztasunez eta berehala irekitzeko prest egon behar dute.

4.3.- Larrialdietako ateek edo bestelako larrialdietako irteerek eduki beharreko urarekiko iragazgaitasuna egokitu beharko da horien kokalekuetara eta eginkizun zehatzetara. Larrialdietako ateek eta bestelako irteerek trenkadek daukaten suaren aurkako erresistentzia bera eduki beharko dute.

4.4.- Larrialdietako bide eta irteerak apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuak, laneko osasun eta segurtasunari buruzko seinaleen inguruan gutxieneko xedapenak zehazten dituenak, adierazitakoaren arabera seinalaturik egongo dira.

4.5.- Argiztapena behar duten larrialdietako bide, husteko bitarteko eta irteerek larrialdietako argiztapen sistemaz ekipaturik egon behar dute, argiztapenean matxura gertatzen den kasuetarako.

#### **5.- Suteak detektatzea eta itzaltzea.**

5.1.- Ontziaren neurrien eta erabileraren arabera, ontziak dituen ekipo, bertan aurkitzen diren substantzien ezaugarri fisiko eta kimiko, eta ontzian egon daitezkeen pertsonen gehieneko kopuruaren arabera, alojamenduek eta lanerako espazio itxiek, makina gela barne, baita beharrezkoa izanez gero arrantza sotoek ere, suteen aurkako gailu egokiak eduki beharko dituzte, eta, beharrezkoa balitz, su detektagailuak eta alarma sistemak ere bai.

5.2.- Suteen aurkako gailuek beti beren lekuan egon beharko dute, behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu beharko dira, eta berehala erabiltzeko prest egon behar dute. Arrantzaleek jakin beharko dute suteen aurkako gailuak non dauden, nola funtzionatzen duten eta nola erabili behar diren. Ontzia portutik irten aurretik, su itzalgailuak eta suteen aurkako ekipo eramangarri guztiak ontziaren barruan daudela ziurtatu beharko da.

5.3.- Suteen aurkako eskuko gailuak erraz eskuratzeko moduan kokaturik egongo dira, eta erraz erabiltzeko modukoak izango dira, eta seinalaturik egongo dira laneko osasun eta segurtasunari buruzko seinaleen inguruan gutxieneko xedapenak zehazten dituen Errege Dekretuak adierazitakoari jarraiki. Seinaleak toki egokietan jarriko dira, eta iraunkorrak izango dira.

5.4.- Suteak detektatzeko eta suteen aurkako alarma sistemak aldian-aldian frogatu beharko dira eta egoera onean mantendu beharko dira.

5.5.- Suteen aurkako ariketak aldizka egin beharko dira.

## **6.- Lanerako toki itxien aireztatzea.**

Arrantzaleek lanerako erabiltzen dituzten metodoak eta pairatu behar dituzten exijentzia fisikoak kontuan hartuta, lan egiteko toki itxiek behar adinako aire freskoa edukitzea zaindu behar da.

Aireztatzeko instalazio mekanikoa erabiliz gero, ondo funtzionatzeko moduan mantendu beharko da.

## **7.- Lokaletako temperatura.**

7.1.- Lan egiten den lokaletako temperatura giza organismorako lan egin bitartean egokia dena izango da, lanerako erabiltzen diren metodoak, arrantzaleek pairatu behar dituzten exijentzia fisikoak eta arrantzaleak ari diren zonaldean dauden edo egon daitezkeen meteorologia baldintzak kontuan hartuta.

7.2.- Alojamentu, komun, jangela eta oinarrizko sorospentarako lokaletako temperatura –lokal horiek baldin badaude– lokal horiek duten erabilera zehatzaren araberakoa izango da.

## **8.- Lan egiteko tokietako argiztapen naturala eta artifiziala.**

8.1.- Lan egiteko tokiek nahikoa argi naturala eduki beharko dute, ahal den neurrian, eta arrantza lanen egoeretara egokitutako argiztatze artifizialaren ekipamendua, arrantzaleen osasuna eta gainerako ontzien nabigazioa arriskuan jartzen ez duena.

8.2.- Lan tokietako, eskaileretako, eskaletako eta korridoretako argiak arrantzaleentzat istripu arriskurik ez duen eta ontziaren nabigazioa oztopatzen ez duen moduan jarri beharko dira.

8.3.- Argiztapen artifizialak matxura edukiz gero arrantzaleentzat arriskutsuak izan daitezkeen tokiek nahikoa intentsitatekoa den larrialdietako argiztapena eduki beharko dute.

8.4.- Larrialdietako argiztapena behar bezala funtzionatzeko moduan mantenduko da, eta aldian-aldian frogatu egingo da.

## **9.- Zoruak, trenkadak eta sabaiak.**

9.1.- Arrantzaleek erabiltzen dituzten tokiak ez labaingarriak izango dira, edo ererikoen aurkako gailuak izango dituzte, eta ez dute oztoporik edukiko, ahal den neurrian.

9.2.- Lanpostuak dauden lan tokiek nahikoak diren isolamendu akustiko eta bero isolamendua edukiko dituzte, arrantzaleen lana eta jarduera fisikoa kontuan hartuta.

9.3.- Lokaletako zoruak azala, trenkadak eta sabaiak garbitu eta emokatu ahal izateko modukoak izango dira, egokiak diren higiene baldintzak lortu ahal izateko.



## **10.- Ateak.**

10.1.- Ateak ireki ahal izango dira beti barrualdetik, berariazko ekipoen beharrik izan gabe. Lan egiteko tokiak erabiltzen direnean, ateak bi aldeetatik ireki ahal izango dira.

10.2.- Ateek, eta bereziki ate gidaridunek horiek instalatzea saihestezina denean, arrantzale-entzat ahalik eta seguruena den moduan funtzionatu beharko dute, batez ere itsasoaren eta meteorologiaren egoerak txarrak direnean.

## **11.-Ibiltzeko bideak eta zona arriskutsuak.**

11. 1.- Korridoreak, enborrak, etxolen kanpoko aldeak eta, orokorrean, ibiltzeko diren bide guztiak baranda, eskudela edo segurtasun sokaz, edo ontziaren barruan jardueraren bat egin bitartean eskifaiaren segurtasuna bermatzen duen beste edozein baliabidez horniturik egongo dira.

11.2.- Arrantzaleak bizkarreko eskotilatik edo bizkar batetik beste batera erortzeko arriskua badago, ahal den tokietan egokia den babes jarri beharko da. Babes hori baranda izanez gero, gutxienez metro bateko garaiera izango du.

11.3.- Instalazioak erabili ahal izateko edo instalazioetan mantentze lanak egiteko, bizkarren gainetik ireki behar diren sarrera-irteerek arrantzaleen segurtasuna bermatu beharko dute. Barandak edo antzeko gailuak jarri beharko dira behar den garaieraz, inor eror dadin saiheste-ko.

11.4.- Amulak edo inor eror ez dadin instalaturik dauden bestelako bitartekoak egoera onean mantendu beharko dira. Amuletan, ura husteko zuloak edo antzeko bitartekoren bat jarri beharko dira, ura azkar husteko.

11.5.- Txopan arrapalak dituzten arraste ontzietan, goiko aldean amuren edo ondoko beste bitartekoen garaiera berekoa den atetzarra edo segurtasunerako bestelako gailua jarriko da, arrantzaleak arrapalan erortzeko arriskutik babesteko. Atetzar edo antzerako gailua erraz ireki eta itxi beharko da, eta hobe urruneko kontrolaren bitartez egiten bada; sarea zabaltzeko eta jasotzeko bakarrik irekiko da.

## **12.- Lan egiteko tokiak.**

12.1.- Lan egiteko tokiak libre egongo dira, eta, ahal den neurrian, itsasotik babestuta egongo dira eta arrantzaleei behar bezalako babes eskainiko diete ontziaren barrura edo itsasora eror ez daitezten. Arraina manipulatzeko lekuak nahikoa zabalak izango dira, bai altuerari bai azalerari dagokienez.

12.2.- Motoreen kontrola makina gelan egiten denean, bereizirik dagoen lokal batetik egin beharko da, makina gelarekiko isolamendu akustikoa eta bero isolamendua edukiko ditu, eta bertara iristeko ez da beharrezkoa izango makina gela igarotzea. Aginteko zubiak lehenengo paragrafoan aipatutako baldintzak betetzen dituen lokala da.

12.3.- Trakzio ekipoen aginteak langileek oztoporik gabe lan egin ahal izateko bezain zabal den zonan instalaturik egongo dira. Horrez gain, trakzio ekipoen larrialdietarako egokiak diren segurtasun gailuak edukiko dituzte, gelditzen direnerako larrialdietako gailuak barne.

12.4.- Trakzio ekipoen aginteei eragiten dien langileak behar bezala ikusi ahal izango ditu ekipoa nahiz lanean ari diren arrantzaleak. Trakzio ekipoei zubitik eragin behar zaienean, langileak, era berean, lanean ari diren arrantzaleak argi eta garbi ikusi beharko ditu, bai zuzenean, bai egokia den edozein baliabideren bitartez.

12.5.- Fidagarria den komunikazio sistema erabili beharko da, zubiaren eta lanerako bizkarren artean.

12.6.- Zaintze lanak egingo dira etengabe, eta eskifaiari jakinaraziko zaio bat-bateko itsaski arriskua dagoela, arrantza lanetan ari direnean, edo bizkarrean beste edozein lan egiten denean.

12.7.- Biragailuek, arrasteko kableek, eta ekipoen pieza mugigarriek aire zabalean egiten duten ibilbidea ahalik eta gehien laburtuko da, babeserako mekanismoen bitartez.

12.8.- Kontrol sistemak ipini beharko dira kargak lekualdatzeko, eta arraste ontzietan, bereziki hurrengo sistemak ipiniko dira:

- a) Arrasteko sarea sartzeko atea blokeatzeko mekanismoak.
- b) Arrasteko sareko zakuaren kulunka kontrolatzeko mekanismoak.

### **13.- Alojamentuak.**

13.1.- Arrantzaleen alojamentuen eta zerbitzuko lokalen (baldin badira) kokapen, egitura, isolamendu akustiko eta bero isolamendu eta banaketak, eta horietara iristeko bideek babesa eskaini beharko dute, arrantzaleek atseden hartu bitartean, eguraldi txarra eta itsasoaren egoera txarra direnean, eta bibrazioak, zarata eta beste zona batzuetatik datozen emanazioak suertatzen direnean.

Ontziaren diseinuak, neurriak edo helburuak aukera ematen dutenean, arrantzaleen alojamentuak kokatu beharko dira mugimenduen eta azelerazioen eraginak minimizatzeko moduan.

Ahal den neurrian, erretzaileak ez direnak tabakoaren keak sortzen dituen eragozpenetatik babesteko neurri egokiak hartu beharko dira.

13.2.- Arrantzaleen alojamentuak behar bezala aireztaturik egongo dira, beti kondentsazioa eragozten duen aire freskoa egon dadin. Alojamentuek argiztapen egokia eduki beharko dute:

- a) Arrunta den argiztapen orokorra, egokia.
- b) Argiztapen orokor murriztua, arrantzaleak atseden hartzen ari direnean eragozpenik sortzen ez diena.
- c) Ohatze bakoitzean, banakako argiak.

13.3.- Sukaldeak eta jangelak, daudenean, egokiak diren neurriak eduki beharko dituzte, behar bezala argiztaturik eta aireztaturik egon behar dute, eta garbitzen errazak izan behar dute.

Hozkailuak egongo dira, edo elikagaiak gordetzeko tenperatura baxuko bestelako bitartekoak.

#### **14.- Higiene-ontziak.**

14.1.- Alojamentuak dituzten ontziek kanilako ura –hotza eta beroa– duten dutxak eta konketak, eta komunak edukiko dituzte, behar bezala instalaturik, ekipaturik eta herdoiletik eta irris-taketetatik babesturik, eta horiek dauden lokalak behar bezala aireztatuta egongo dira.

14.2.- Langile bakoitzak bere jantziak gordetzeko espazioa eduki beharko du.

#### **15.- Oinarrizko sorospenak.**

Ontzi guztiek eduki beharko dute oinarrizko sorospenatarako materiala, ontzien barruko segurtasun, osasun eta laguntza medikoari buruzko arautegiaren arabera.

#### **16.- Ontziratze eskailerak eta pasabideak.**

Ontziek ontziratze eskailera bat, ontziratze pasabide bat edo antzeko bitarteko bat eduki beharko dute, ontzira iristea behar bezala eta era seguruan ahalbidetzen duena.

#### **17.-Zarata.**

Ontziaren tamainaren arabera, lan egiteko tokietan eta alojamentuetan soinuaren maila ahal den murriztena izan dadin, beharrezkoak diren neurri tekniko guztiak hartu beharko dira.

## **II. ERANSKINA: BERRIAK EZ DIREN ARRANTZA-ONTZIEK BETE BEHARREKO GUTXIENENKO XEDAPENAK, SEGURTASUN ETA OSASUN ALORREAN.**

### **AURRETIAZKO ADIERAZPENA**

Eranskin honetan aurreikusten diren betebeharrak bete beharko dira berria ez den arrantza-ontziaren egituraren ezaugarrien arabera, lana edo jarduera egiten diren tokiek, edo berria ez den arrantza-ontzi batean suerta litezkeen egoerek edo egon litekeen edozein arriskuk hala eskatzen duten guztietan.

#### **1.- Nabigagarritasuna eta egonkortasuna.**

1.1.- Ontzia nabigagarritasun baldintza onetan mantendu beharko da, eta dituen helmuga-ren eta erabileraren arabera, behar bezalako ekipamendua eduki beharko du.

1.2.- Ontziaren egonkortasunaren ezaugarriak buruzko informazioak ontzian egon eta zaintze lanetan ari diren langileentzat eskuragarria izan beharko du.

1.3.- Ontzi guztiek eduki beharko dute eta bere horretan mantendu beharko dute behar bezalako egonkortasuna, aurreikusitako zerbitzu baldintzetan. Kapitainak ontziaren egonkortasuna mantentzeko beharrezkoak diren arreta neurriak hartu beharko ditu. Ontziaren egonkortasunari buruzko jarraibideak zurrin bete beharko dira.

#### **2.- Instalazio mekaniko eta elektrikoa.**

2.1.- Instalazio elektrikoa arriskurik ez sortzeko moduan proiektatu eta jarri beharko da, eta baita hurrengo baldintzak bermatzeko moduan ere:

- a) Eskifaia eta ontzia elektrizitate arriskuetatik babesturik egotea.
- b) Ontzia mantentzeko ekipamenduek, lan eta bizigarritasun baldintza arruntetan, eta larrialdietako energia elektrikoa sortzen duen iturriren batera jo gabe, behar bezala funtzionatzea.
- c) Larrialdi egoera gertatuz gero, segurtasunerako funtsezkoak diren aparailu elektrikoek funtzionatzea.

2.2.- Larrialdietako energia elektrikoa sortzen duen iturria instalatu beharko da.

Ontziaren egituraren ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean, energia elektrikoaren iturriak makina gelatik kanpo instalaturik egon beharko du, irekiak diren ontzietan izan ezik, eta elektrizitate instalazio nagusian sua sortuz gero, edo matxura gertatuz gero, gutxienez hiru ordu-tan ondoren zehazten diren instalazioek aldi berean funtzionatzea bermatzeko moduan diseinaturik egon beharko du, kasu guztietan:

- a) Barneko komunikazio sistemak, su detektagailuek eta larrialdi egoeran beharrezkoak diren seinaleek.
- b) Nabigazio argiek eta larrialdietako argiztapenak.
- c) Irrati-komunikaziorako sistemak.
- d) Suteen aurkako larrialdietako punpa elektrikoak, ontziko ekipamenduaren barruan baldin badago.

Larrialdietako energia elektrikoaren iturria metagailu elektrikoaren multzoa bada, eta energia elektrikoaren iturri nagusiak huts egiten badu, metagailu elektrikoaren multzo horrek era automatikoan konektaturik geratu beharko du larrialdiko energia elektrikoa banatzen duen mahaiarekin, eta bermatu beharko du hiru ordutan, etenik gabe, bigarren paragrafoko lehenengo, bigarren eta hirugarren ataletan aipatzen diren sistemak elikatuz egongo direla.

Ahal den guztietan, elektrizitatea banatzeko mahai nagusia eta larrialdietako mahai uraren edo suaren eraginpean biak batera ez egoteko moduan instalatu beharko dira.

2.3.- Energia elektrikoaren banaketa mahaiak jarraibide argiak eduki beharko dituzte; fusibleen kuxkak eta euskarriak aldizka berrikuskatu beharko dira, fusio intentsitate zuzena daukaten fusibleak erabiltzen ari direla ziurtatzeko.

2.4.- Metagailu elektrikoak kokaturik dauden konpartimenduak behar bezala aireztaturik egongo dira.

2.5.- Maiztasunez frogatu beharko dira, eta behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu beharko dira nabigaziorako gailu elektroniko guztiak.

2.6.- Zamalanak egiteko ekipamendua aldizka frogatu eta aztertu beharko da.

2.7.- Trakzio mekanismoaren osagarri guztiak, baita zamalanetako mekanismoarenak eta antzekoak diren ekipo guztien mekanismoenak ere, behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu behar dira.

2.8.- Ontzian, hozteko instalazioak eta aire konprimituaren sistemak egonez gero, behar bezala mantendu beharko dira, eta aldizka berraztertu.

2.9.- Gas astuna erabiltzen duten sukaldeko aparailuak eta elektrotresnak ondo aireztatuta ko espazioetan bakarrik erabili beharko dira, eta zaindu egingo da, arriskutsua den gas metaketa gerta ez dadin. Gas sukoiak eta bestelako gas arriskutsuak dauzkaten zilindroetan argi eta garbi adierazita egongo da zer eduki dagoen horien barruan, eta bizkar irekietan metatuko dira. Zilindro horiekin lotutako balbula, presio erreguladore eta hodiak babesturik egongo dira edozerk honda ez ditzan.

### **3.- Irrati-komunikazioaren instalazioa.**

Irrati-komunikazioaren instalazioa prestatu egongo da edozein unetan kostako edo lurreko estazio batekin gutxienez harremanetan jartzeko, irrati uhinak zabaltzeko baldintza arruntak kontuan hartuta.

### **4.- Larrialdietako bide eta irteerak.**

4.1.- Larrialdietako bide eta irteera gisa erabil daitezkeen bide eta irteerak beti egongo dira libre; horietara iristea erraza izango da, eta ahalik eta era zuzenean eraman behar dute goiko bizkarrera edo segurtasun gune batera, eta hortik salbamendu ontzietara, hartara, arrantzaleak lan eta alojamendu tokietatik azkartasunez eta segurtasun handieneko baldintzetan irten daitezten.

4.2.- Larrialdietako bide eta irteera gisa erabil daitezkeen bide eta irteera kopurua, horien banaketa eta neurriak egokituta egongo dira lan tokietako eta alojamenduetako erabilerara, ekipamendura eta neurrietara; era berean, egokituta egongo dira leku horietan egon daitezkeen pertsonen gehieneko kopurura. Larrialdietako irteera gisa erabil daitezkeen eta itxita mantentzen diren irteerek larrialdi egoeran edozein langilek edo salbamendu taldeek erraztasunez eta berehala irekitzeko prest egon behar dute.

4.3.- Larrialdietako bide eta irteerak laneko osasun eta segurtasunari buruzko seinaleen inguruan gutxieneko xedapenak zehazten dituen Errege Dekretuak adierazitakoaren arabera seinalaturik egongo dira. Seinaleak toki egokietan jarri beharko dira eta iraunkorrak izango dira.

4.4.- Argiztapena behar duten larrialdietako bide, husteko bitarteko eta irteerek larrialdietako argiztapen sistemaz ekipaturik egon behar dute, argiztapenean matxura gertatzen den kasuetarako.

4.4.- Argiztapena behar duten larrialdietako bide, ontzia husteko bitarteko edo irteerek nahikoa intentsitatea izango duen larrialdietako argiztapen sistema eduki beharko dute, argiztapenean matxura gertatzen den kasuetarako.

### **5.- Suteak detektatzea eta itzaltzea.**

5.1.- Ontziaren neurrien eta erabileraren arabera, ontziak dituen ekipo, bertan aurkitzen diren substantzien ezaugarri fisiko eta kimiko, eta ontzian egon daitezkeen pertsonen gehieneko kopuruaren arabera, alojamenduek eta lanerako espazio itxiek, makina gela barne, baita beharrezkoa izanez gero arrantza sotoek ere, suteen aurkako gailu egokiak eduki beharko dituzte, eta, beharrezkoa balitz, su detektagailuak eta alarma sistemak ere bai.

5.2.- Suteen aurkako gailuek beti beren lekuan egon beharko dute, behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu beharko dira, eta berehala erabiltzeko prest egon behar dute. Arrantzaleek jakin beharko dute suteen aurkako gailuak non dauden, nola funtzionatzen duten eta nola erabili behar diren. Ontzia portutik irten aurretik, su itzalgailuak eta suteen aurkako ekipo eramangarri guztiak ontziaren barruan daudela ziurtatu beharko da.

5.3.- Suteen aurkako eskuzko gailuak erraz eskuratzeko moduan kokaturik egongo dira, eta erraz erabiltzeko modukoak izango dira, eta seinalaturik egongo dira laneko osasun eta segurtasunari buruzko seinaleen inguruan gutxieneko xedapenak zehazten dituen Errege Dekretuak adierazitakoari jarraiki. Seinaleak toki egokietan jarriko dira, eta iraunkorrak izango dira.

5.4.- Suteak detektatzeko eta suteen aurkako alarma sistemak aldian-aldian frogatu behar-ko dira eta egoera onean mantendu behar-ko dira.

5.5.- Suteen aurkako ariketak aldizka egin behar-ko dira.

## **6.- Lanerako toki itxiak aireztatzea.**

Arrantzaleek lanerako erabiltzen dituzten metodoak eta pairatu behar dituzten exijentzia fisikoak kontuan hartuta, lan egiteko toki itxiak behar adinako aire freskoa edukitzea zaindu behar da.

Aireztatzeke instalazio mekanikoa erabiliz gero, ondo funtzionatzeko moduan mantendu behar-ko da.

## **7.- Lokaletako tenperatura.**

7.1.- Lan egiten den lokaletako tenperatura giza organismorako lan egin bitartean egokia dena izango da, lanerako erabiltzen diren metodoak, arrantzaleek pairatu behar dituzten exijentzia fisikoak eta arrantzaleak ari diren zonaldean dauden edo egon daitezkeen meteorologia baldintzak kontuan hartuta.

7.2.- Alojamentu, komun, jangela eta oinarrizko sorospenetarako lokaletako tenperatura –lokal horiek baldin badaude– lokal horiek duten erabilera zehatzaren arabera izango da.

## **8.- Lan egiteko tokietako argiztapen naturala eta artifiziala.**

8.1.- Lan egiteko tokiek nahikoa argi naturala eduki behar-ko dute, ahal den neurrian, eta arrantza lanen egoeretara egokitutako argiztatze artifizialaren ekipamendua, arrantzaleen osasuna eta gainerako ontzien nabigazioa arriskuan jartzen ez duena.

8.2.- Lan tokietako, eskaileretako, eskaletako eta korridoretako argiak arrantzaleentzat istripu arriskurik ez duen eta ontziaren nabigazioa oztopatzen ez duen moduan jarri behar-ko dira.

8.3.- Argiztapen artifizialak matxura edukiz gero arrantzaleentzat arriskutsuak izan daitezkeen tokiek nahikoa intentsitatekoa den larrialdietako argiztapena eduki behar-ko dute.

8.4.- Larrialdietako argiztapena behar bezala funtzionatzeko moduan mantenduko da, eta aldian-aldian frogatu egingo da.

## **9.- Zoruak, trenkadak eta sabaiak.**

9.1.- Arrantzaleek erabiltzen dituzten tokiak ez labaingarriak izango dira, edo erorikoen aurkako gailuak izango dituzte, eta ez dute oztoporik edukiko, ahal den neurrian.

9.2.- Lanpostuak dauden lan tokiek nahikoak diren isolamendu akustiko eta bero isolamendua edukiko dituzte, arrantzaleen lana eta jarduera fisikoa kontuan hartuta.

9.3.- Lokaletako zoru- eta trenkadak azala, trenkadak eta sabaiak garbitu eta emokatu ahal izateko modukoak izango dira, egokiak diren higiene baldintzak lortu ahal izateko.

## **10.- Ateak.**

10.1.- Ateak ireki ahal izango dira beti barrualdetik, berariazko ekipoen beharrik izan gabe. Lan egiteko tokiak erabiltzen direnean, ateak bi aldeetatik ireki ahal izango dira.

10.2.- Ateek, eta bereziki ate gidaridunek horiek instalatzea saihestezina denean, arrantzale-entzat ahalik eta seguruena den moduan funtzionatu beharko dute, batez ere itsasoaren eta meteorologiaren egoerak txarrak direnean.

## **11.- Ibiltzeko bideak eta guneriskutsuak.**

11. 1.- Korridoreak, enborrak, etxolen kanpoko aldeak eta, orokorrean, ibiltzeko diren bide guztiak baranda, eskudela edo segurtasun sokaz, edo ontziaren barruan jardueraren bat egin bitartean eskifaia segurtasuna bermatzen duen beste edozein baliabidez horniturik egongo dira.

11.2.- Arrantzaleak bizkarreko eskotilatik edo bizkar batetik beste batera erortzeko arriskua badago, ahal den tokietan egokia den babesa jarri beharko da.

11.3.- Instalazioak erabili ahal izateko edo instalazioetan mantentze lanak egiteko, bizkarren gainetik ireki behar diren sarrera-irteerek arrantzaleen segurtasuna bermatu beharko dute. Barandak edo antzeko gailuak jarri beharko dira behar den garaieraz, inor eror dadin saihesteko.

11.4.- Amulak edo inor eror ez dadin instalaturik dauden bestelako bitartekoak egoera onean mantendu beharko dira. Amuletan, ura husteko zuloak edo antzeko bitartekoren bat jarri beharko dira, ura azkar husteko.

11.5.- Txopan arrapalak dituzten arraste ontzietan, goiko aldean amuren edo ondoko beste bitartekoen garaiera berekoa den atetzarra edo segurtasunerako bestelako gailua jarriko da, arrantzaleak arrapalan erortzeko arriskutik babesteko. Atetzar edo antzerako gailua erraz ireki eta itxi beharko da; sarea zabaltzeko eta jasotzeko bakarrik irekiko da.

## **12.- Lan egiteko tokiak.**

12.1.- Lan egiteko tokiak libre egongo dira, eta, ahal den neurrian, itsasotik babestuta egongo dira eta arrantzaleei behar bezalako babesa eskainiko diete ontziaren barruan edo itsasora eror ez daitezten. Arraina manipulatzeko lekuak nahikoa zabalak izango dira, bai altuerari bai azalerari dagokienez.

12.2.- Motoreen kontrola makina gelan egiten denean, bereizirik dagoen lokal batetik egin beharko da, makina gelarekiko isolamendu akustikoa eta bero isolamendua edukiko ditu, eta bertara iristeko ez da beharrezkoa izango makina gela igarotzea. Aginteko zubiak lehenengo paragrafoan aipatutako baldintzak betetzen dituen lokala da.

12.3.- Trakzio ekipoen aginteak langileek oztoporik gabe lan egin ahal izateko bezain zabal den zonan instalaturik egongo dira. Horrez gain, trakzio ekipoei larraldietarako egokiak diren segurtasun gailuak edukiko dituzte, gelditzen direnerako larraldietako gailuak barne.

12.4.- Trakzio ekipoen aginteei eragiten dien langileak behar bezala ikusi ahal izango ditu ekipoa nahiz lanean ari diren arrantzaleak. Trakzio ekipoei zubitik eragin behar zaienean, langileak, era berean, lanean ari diren arrantzaleak argi eta garbi ikusi beharko ditu, bai zuzenean, bai ego-



kia den edozein baliabideren bitartez.

12.5.- Fidagarria den komunikazio sistema erabili beharko da, zubiaren eta lanerako bizkarren artean.

12.6.- Zaintze lanak egingo dira etengabe, eta eskifaiari jakinaraziko zaio bat-bateko itsaski arriskua dagoela, arrantza lanetan ari direnean, edo bizkarrean beste edozein lan egiten denean.

12.7.- Biragailuek, arrasteko kableek, eta ekipoaren pieza mugigarriek aire zabalean egiten duten ibilbidea ahalik eta gehien laburtuko da, babeserako mekanismoen bitartez.

12.8.- Kontrol sistemak ipini beharko dira kargak lekualdatzeko, eta arraste ontzietan, bereziki hurrengo sistemak ipiniko dira:

a) Arrasteko sarea sartzeko atea blokeatzeko mekanismoak.

b) Arrasteko sareko zakuaren kulunka kontrolatzeko mekanismoak.

### **13.- Alojamentuak.**

13.1.- Arrantzaleen alojamentuek, daudenean, beste zona batzuetatik datozen zaratak, bibrazioak, mugimenduen ondorioak eta azelerazioak eta emanazioak minimizatzeko moduak izan beharko dute. Alojamentuek argiztapen egokia eduki beharko dute:

13.2.- Sukaldeak eta jangelak, daudenean, egokiak diren neurriak eduki beharko dituzte, behar bezala argiztaturik eta aireztaturik egon beharko dute, eta garbitzen errazak izan behar dute.

13.3.- Hozkailuak egongo dira, edo elikagaiak gordetzeko tenperatura baxuko bestelako bitartekoak.

### **14.- Higiene ontziak.**

Alojamenduak dituzten ontzietan, konketak eta komunak instalatuko dira, eta ahal bada, dutxak ere bai, herdoiletik eta irristaketetatik babesturik, eta horiek dauden lokalak behar bezala aireztatuta egongo dira.

### **15.- Oinarrizko sorospenak.**

Ontzi guztiek eduki beharko dute oinarrizko sorospenetako materiala, ontzien barruko segurtasun, osasun eta laguntza medikoari buruzko arautegiaren arabera.

### **16.- Ontziratze eskailerak eta pasabideak.**

Ontziek ontziratze eskailera bat, ontziratze pasabide bat edo antzeko bitarteko bat eduki beharko dute, ontzira iristea behar bezala eta era seguruan ahalbidetzen duena.

### **III. ERANSKINA: SALBAMENDURAKO ETA BIZIRAUTEKO BALIABIDEEI BURUZKO GUTXIENEN XEDAPENAK, SEGURTASUN ETA OSASUN ALORREAN.**

#### **AURRETIAZKO ADIERAZPENA**

Eranskin honetan aurreikusten diren betebeharrak lanaren edo jardueraren ezaugarriek, egoerek edo arrantza-ontzi batean egon litekeen edozein arriskuk hala eskatzen duten guztietan bete beharko dira.

1.- Ontziek salbamendurako eta biziraupenerako behar bezalako bitartekoak eduki beharko dituzte, arrantzaleak uretatik ateratzeko baliabide egokiak eta irratiaren bidezko salbamendu bitartekoak barne, bereziki askatze hidrostatikorako gailua duen irrati-baliza bat ezbeharrak gertatu den lekua aurkitzeko, ontziaren barruan dauden pertsonak eta lanean ari diren zona kontuan hartuta.

2.- Salbamendu eta biziraupenerako baliabide guztiak behar den lekuan gorde beharko dira, behar bezalako funtzionatzeko moduan, eta berehala erabiltzeko prest egongo dira. Arrantzaleek kontrolatu beharko dituzte baliabideak ontziak portutik irteten direnean eta nabigatzen ari diren bitartean.

3.- Salbamendurako eta biziraupenerako baliabideak aldi-aldi ikuskatuko dira.

4.- Arrantzale guztiak behar bezala trebatu eta prestaturik egon beharko dute, edozein larrialdi gertatzen den kasurako.

5.- Ontziaren luzera berrogeita bost metrotik gorakoa baldin bada, edo eskifaia bost arrantzalek edo gehiagok osaturik baldin badago, larrialdietan langile bakoitzak bete beharreko jarraibide zehatzak dituen taula organikoa egongo da.

6.- Hilero, deia egingo zaie arrantzaleei portuan edo itsasoan salbamendu ariketak egiteko. Ariketa horiek bermatu beharko dute arrantzaleek behar bezala ezagutzen dituztela salbamendu eta biziraupenerako baliabide guztien funtzionamendua eta erabilera, eta horiek erabiltzen dakitela. Arrantzaleek prestaturik egon beharko dute irrati mugigarria –dagoenean– instalatzeko eta erabiltzeko.

**IV. ERANSKINA:** NORBERA BABESTEKO EKIPOEI BURUZKO GUTXIENENKO XEDAPENAK, SEGURTASUN ETA OSASUN ALORREAN.

## AURRETIAZKO ADIERAZPENA

Eranskin honetan aurreikusten diren betebeharrak lanaren edo jardueraren ezaugarriek, egoerek edo arrantza-ontzi batean egon litekeen edozein arriskuk hala eskatzen duten guztietan bete beharko dira.

1.- Arrantzaleen segurtasun eta osasunerako dauden arriskuak babesteko baliabide kolektibo edo teknikoen bidez behar bezala saihesterik edo mugatzerik ez dagoenean, norbera babesteko ekipoak eman beharko zaizkie arrantzaleei.

2.- Jantzi moduan edo jantzien gainean erabiltzen diren norbera babesteko ekipoek kolore biziak eduki beharko dituzte, itsas inguruko koloreen ezberdinak eta oso ondo ikusteko modukoak izan behar dute.



**OSALAN**

## 2. atala: Lan istripuaren ikerketaren txostena

**Erakunde autonomiaduna**  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Justizia, Lan eta  
Gizarte Segurantzza Saila  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

## ARRANTZA JARDUERAKO LAN ISTRIPUAREN IKERKETA

ISTRIPUA IZAN DUENA:

ENPRESA:

ARRANTZA-ONTZIAREN IZENA:

ZENBAKI EDO LETRA BEREIZGARRIAK:

MATRIKULA PORTUA:

LUZERA:

ISTRIPUA GERTATUTAKO LEKUA:

ISTRIPUAREN DATA:

ISTRIPUAREN LARRITASUNA:

## **1.- Txostenaren datuak.**

- 1.1.- Egilea.
- 1.2.- Data.
- 1.3.- Elkarrizketa egin zaien enpresako pertsonak eta karguak.

## **2.- Istripuaren azalpena.**

Nola gertatu zen azalduko da labur-labur.

## **3.- Istripua gertatutako lekuaren baldintzen azterketa.**

Istripua gertatutako lantokiko lekua, saila edo gunea zehaztuko da. Baldintza atmosferikoen egoera azaltzea gomendatzen da.

## **4.- Istripua gertatutako lanpostuaren arrisku ebaluaziorik badagoen.**

Halakorik baden ala ez aztertuko da. Baldin badago, arrisku horiek kontrolatzeko eta murrizteko prebentzio neurriak proposatu al ziren ikertuko da. Halakorik proposatu bazen, atala honetan bilduko da.

## **5.- Istripuaren zergatien ikerketa.**

Lehendabizi arriskurik badagoen aztertuko da eta, ondoren, inguruan edo lanpostuan daudenak zehaztuko dira, (esate baterako, atrapatuta geratzea, maila berera edo desberdinerara erortzea, erredurak, zanpaketak, kolpeak, etab.); langilea edo arrantzale-taldea egiten ari zen lan-fasean edo zereginean arrisku egoerarik ba al zen eta egiten ari zen lanak arrisku horretan jartzen al zuen; istripua eragin zuen gertakaria, garbi adieraziz zein maniobra edo ekintza egin zuen langileak, edo, justu istripua gertatu aurretik gertatutako ezustekoa.

## **6.- Gomendatutako prebentzio neurriak.**

Garrantziaren arabera ordenatuko dira, aurreko ataleko zergatiekin lotuta.

## **7.- Krokisa.**

**OHARRA:** Istripuaren partearen kopia bidaltzen da honekin batera (aurreko identifikazioaren datuak, enpresaren datuak, istripua izandako langilearen datuak eta istripuari buruzko datuak bildu dira bertan).

Sin.:



**OSALAN**

3. atala:  
**Arrantza-  
ontzietarako  
sarbide egokiak**

**Erakunde autonomiaduna**  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Justizia, Lan eta  
Gizarte Segurantzza Saila  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

## SARRERA



Lurreko lantokietara sartzeko espaloia, eskailerak, etab. erabiltzen ditugu.

Arrantza-ontzietan, berriz, bestelako bitartekoak erabili behar izaten ditugu. Izan ere, kaia eta ontzia bananduta egoten direnez eta ontziaren posizioa etengabe aldatzen denez, arrisku handia sortzen da. Horren ondorioz istripu eta gertakari ugari izaten da, eta batzuetan zoritxarreko ondorioak izaten dituzte.


## METODO ETA EMAITZAK

Kaia edo pantalan bati alboz atrakatutako ontzia


1. Ontziaren sarrera-bizkarra nabarmenki altuagoa da ontzira igo edo handik ateratzen den lekua (kaia) baino



2. Ontziaren bizkarra ontzira igo edo handik ateratzen den lekuaren mailan dago



3. Ontziaren sarrera-bizkarra nabarmenki baxuagoa da ontzira igo edo handik ateratzen den lekua baino





## **Arriskuak:**

- Sarbidean lurrera erortzea (kaiari)
- Ontzia eta kaiaren artean itsasora erortzea
- Karel-tapatik bizkarrera edo sarbidera erortzea
- Ontzia eta kaiaren artean atrapatuta geratzea
- Ontziko bizkarrera erortzea

## **Prebentzio neurriak:**

- Zutikoak eta eskudelak edo barandak dituzten eskalak edo pasabideak erabiltzea
- Sarrerako elementuak leku egokian kokatzea; ahal bada beti ate baten bidez eta ez kareltaparen gainean
- Sarrerako elementuak ontziari gogor eustea
- Gunea eta sarrerako elementuak ondo argizatzea
- Sarbideko zoruan beti material irristagaitzak erabili behar dira
- Segurtasun sareak erabiltzea
- Rabiza eta automatikoki pizten den argia dituen salbamendu-aroa erabilgarri izatea
- Tripulatzailen prestakuntza

## **ONDORIOAK**

- Lan taldeak onetsitako hiru egoeretatik operatiboena 1. atalari dagokiona dela esan daiteke, huraxe baita hain zuzen arrantza-ontziak daramana
- 2. atalean agertzen den sarbidea egokia da itsaso itxietarako edo ontzira igo eta handik ateratzeko lekua ontziaren maila paretsuan dagoen kasuetarako
- 3. atalean agertzen dena kaietan egoten da eta egokitzen jotzen da, batez ere, mantentze, karga, deskarga, konponketa eta beste hainbat lanetarako.

## **BIBLIOGRAFIA**

- 1216/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, arrantza-ontzietako laneko segurtasun eta osasunari buruzkoa
- Itsasoko segurtasun eta higienaren eskuliburu teknikoa (Manual Técnico de Seguridad e Higiene en el mar). Bilduma teknikoa, eskuliburu, edizio eta argitalpenen saila 1/82

## 1. motako pasabidea



Mota honetako pasabideak kaiari lotzen zaizkio eta lerrakorrak izaten dira ontziko karelean soldatutako karrilaren bidez.



Kaiari nola lotzen zaion erakusten duen irudia.



Kaiari nola lotzen zaion eta arrantza-ontziaren kareleko erroadura-bidea erakusten dituen irudia.



Pasabidearen goiko zatiaren irudia. Ontziaren karelean instalatuta dago eta erroaduraren bidea ikusten da.

## 2. motako pasabidea



1. motakoaren antzekoa da. Ontziaren karelean instalatutako pasabidearen goi-zatia erakusten da hemen eta karrila U motakoa dela ikus dezakezu.



Kaiari nola lotzen zaion erakusten duen irudia eta sarrerako pasabidearen aurre-ikuspegia.



Ontziaren kareleko errodadura-bidearen ikuspegia.

### 3. motako pasabidea



Mota honetako pasabideetan beheko zatia, kaian kokatutakoa, mugikorra izaten da: arrantza-ontziaren karelean kokatutakoa, aldiz, finkoa.



Arrantza-ontziaren karelean instalatutako zati finkoaren xehetasunak erakusten dituen irudia.



Kaian kokatutako errodadura gunearen eta arrantza-ontziaren sarrerako pasabidearen zati mugikorraren xehetasunak erakusten dituen irudia.





Pasabideak jartzeko, argazkian agertzen den igotze-sistemaren antzekoa behar izaten da. Argazkikoa 3. motako pasabideentzat erabiltzen da (kaian kokatutako desplazamendu-sistema ikusten da).



Aurreko argazkian bezala, baina ontziratzeke pasabidea kaiko lurraren gainean ipinita.

#### 4. motako pasabidea



Arrantza-ontziko zatia finkoa da, baina kaiko zatia mugitu egiten da ontziratzeo pasabidean jarritako arrabol batzuen bidez.



Aurreko argazkiaren aurre-ikuspegia.



Pasabidearen ikuspegia ontzitik.

## 5. motako pasabidea



Hiru zatiko ontziratze pasabidea, arrantza-ontziaren brankan tolestua.



Ontziratze pasabidearen destolestea



Hiru zatiko pasabidea, ontziaren brankatik kaira destolestua



Bi zatiko pasabidea, kaiaren gainean destolestua



**OSALAN**

## 4. atala: Norbera babesteko ekipoak

**Erakunde autonomiaduna**  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Justizia, Lan eta**  
**Gizarte Segurantzza Saila**  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

'Norberaren babesak' izenez ezagutzen den teknikaren xedea langilea kanpoko erasoetatik babestea da. Arazo horiek fisikoak, kimikoak nahiz biologikoak izan daitezke eta jatorri bera izaten dute: lan jarduera jakin bat burutzean gauzatzen edo sortzen direla.

Gizakiaren eta arriskuaren arteko azken barrera da norberaren babesak eta horregatik ezinbestekoa da langilearen osasunaren aurkako arrisku egoeretan babes hori baliatzea. Horrek ez du esan nahi norberaren babesak denik langilearen osasuna babesteko konponbide nagusia edo egokiena; alabaina, babes kolektiboaren teknika osagarritzat jo behar da, eta inoiz ez babes kolektiboa ordeztuko teknikatzat.

Hori horrela izateko arrazoi asko daude, baina guztien artean hauxe da garrantzitsua: arrisku egoera ekiditeko xedearekin diseinatu eta aplikatzen da babes kolektiboa, baina norberaren babesak ez du inoiz helburu izaten arrisku egoera ekiditea, ez eta murriztea ere; aitzitik, arrisku egoera horrek arrantzaleen osasunari eragindako ondorioak kentzea edo murriztea da norberaren babesaren xedea.

Norbera babesteko arropak erabiltzeari dagokionez, kontuan hartu beharrekoa da erabilera pertsonalekoak izan behar dutela; hala nola, langile bakoitzari behar duen berariazko babes ekipoa esleitu eta emango zaio.

Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legeak honela definitzen du Norbera Babesteko Ekipamendua (NBE): lanean bere segurtasun edo osasunaren aurka egin dezakeen arrisku bat edo gehiagoren aurrean babesteko helburuarekin langileak jantzi edo eramaten duen edozein ekipoa, edo halako xedea duen beste edozein elementu osagarri edo lagungarri.

1407/1992 Errege Dekretuaren xedea da 89/686/CEE Kontseiluaren Zuzentaraua betetzeko berariazko xedapenak ezartzea norbera babesteko ekipamenduei buruz, hartara Estatu kideek dituzten legeriak hurbiltzeko helburuarekin.

Errege Dekretu hau NBEei aplikatuko zaie, alde batetik, Europako Batasunaren baitako merkaturatzearen eta zirkulazio librearen baldintzak ezartzeko, eta, bestetik, erabiltzaileen osasuna zaindu eta euren segurtasuna bermatu ahal izateko osasun eta segurtasun eskakizunak zehazteko.

1407/1992 Errege Dekretuaren arabera NBEtzat joko da osasun edo segurtasunaren aurkako arrisku batetik edo hainbat arriskutatik babesteko helburuarekin pertsona batek erabili edo jantzita eramaten duen edozein baliabide edo bitarteko. Hauek ere NBEtzat joko dira:

- a) Aldi berean gerta litekeen arriskutik edo gerta litezkeen arriskuetatik pertsona babesteko fabrikatzaileak solidarioki elkartutako baliabide edo bitartekoek osatutako multzoa.
- b) Pertsona batek jarduera bat burutzean baliatu edo jantzen duen bitarteko edo baliabide babesgarri solidarioa, ekipoa ez babesgarri indibidual batekiko disozialgarria edo ez derogagarria.
- c) NBEaren osagai aldagarriak, ondo funtzionatzekoak ezinbestekoak direnak eta berariaz NBE horrentzat erabiltzen direnak.

Kanpoko bitarteko osagarri batekin lotzeko NBEarekin batera saltzen den edozein konexio sistema NBEren zatitzat joko da, nahiz eta arrisku batek edo gehiagok irauten duen denbora guztian zehar erabiltzaileak etengabe konexio sistema hori berarekin ez eraman edo erabilgarri ez izan.



### 1407/1992 Errege Dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Errege Dekretu honek xedatutako merkaturatze, zirkulazio libre eta segurtasunaren helburu berdinak dituzten EEEn Zuzentzauek aplikatzen dituzten beste xedapen batzuen objektu diren NBEak.

b) Jarraian agertzen den zerrendan aipatzen diren NBE motak, aurreko paragrafoan jasotako bazterte-arrazoia alde batera utzita.

### 1407/1992 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan jasotzen ez diren NBE mota edo tipoen zerrenda:

1.- Indar armatuentzako edo ordena publikoko indarrentzako berriaz diseinatu eta fabrikatutako NBEak (kaskoak, ezkutuak, etab.).

2.- Erasotzaileen aurka norbera babesteko NBEak (aerosol sorgailuak, disuasio arma individualak, etab.).

3.- Ondoko hauen aurkako erabilera partikularrerako diseinatu eta fabrikatutako NBEak:

a) Baldintza atmosferikoak (txanoak, denboraldiko jantziak, zapatak eta botak, euritakoak, etab.).

b) Hezetasuna, ura (urarekin garbiketak egiteko eskularruak, etab.).

c) Beroa (eskularruak).

4.- Ontzi edo ontzietan doazen pertsonak babestu edo salbatzeko xedea duten NBEak, baina beti eramaten ez direnak.

5.- Bi edo hiru gurpileko ibilgailu motordunen erabiltzaileentzako kasko eta biserak.

Inportatu, merkaturatu edo zerbitzuan jarri ahal izateko, ezinbestekoa izango da aurretik aipatutako NBEek erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna bermatzea, gainerako pertsonen, etxebereen edo ondasunen osasuna eta segurtasuna arriskuan jarri gabe, behar bezala mantendu eta euren xedearekin bat etorri erabiltzen badira.

1997ko urtarrilaren 1az geroztik, 1407/1992 eta 159/1995 Errege Dekretua betetzen dituzten NBEak bakarrik inportatu, merkaturatu eta zerbitzuan jarri daitezke – Europako Batasunean norbera babesteko ekipoak merkaturatzeko eta libreki zirkulatzeko baldintzak araupetzen dituzte dekretu horiek-. Hori horrela izanik, osasun eta segurtasun eskakizunak betetzen dituzten ekipoek honako adierazpen hauek izango dituzte: **CE ikurra, Adostasun adierazpena, Kontrol organismoaren ziurtagiria (2 eta 3 kategoriak), A edo B Kalitate kontrola (3 kategoria), eta fabrikatzailearen informazio foiletua.**

NBEek ondoko CE markak izango dituzte:

I eta II kategoriak: **CE**

III kategoria: **CE XXXX**

XXXX ikurra 4 digitu identifikagarri dituen kodea da, eta Europako Batasunaren baitan produkzioaren kalitatea egiaztatzeko kontrola egiten duen organismoari dagokio.

Informazio-foiletoan adieraziko dira:

- a) Gordetzea, erabilera, garbiketa, mantentzea, berraztertzea eta desinfekzioari buruzko jarraibideak.
- b) NBEen babes mailak edo motak egiaztatzeko azterketetan lortutako emaitza teknikoak.
- c) NBEetan erabil daitezkeen osagarriak eta ordezeko pieza egokien ezaugarriak.
- d) Arrisku maila desberdinentzat behar diren babes-mailak eta dagozkien erabilera-mugak.
- e) NBEen edo euren osagairen baten iraungitze-data edo epea.
- f) NBEak garraiatzeko bilgarri mota.
- g) Marken azalpena (halakorik baldin badago).
- h) "CE" ikurra ipintzeko (halakorik ipini bada) aplikatu diren xedapenen erreferentziak, NBEari aplikagarri zaizkion neurrian; horrez gain, ikur hori ipintzearekin lotutako bestelako xedapenak ere bai.
- i) NBEak diseinatzeko fasean esku hartu duten kontrol organismoen izena, helbidea eta identifikazio zenbakia.

NBEak hautatu, lanean erabili (arrantzaleek) eta mantentzeko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen ditu 773/1997 Errege Dekretuak

Errege Dekretu horren arabera NBEa hauxe da: lanean bere segurtasun edo osasunaren aurka egin dezakeen arrisku bat edo gehiagoren aurrean babesteko helburuarekin langileak jantzi edo eramaten duen edozein ekipo, edo halako xedea duen beste edozein elementu osagarri edo lagungarri. Definizioetik kanpo geratzen dira:

- a) Langilearen osasuna eta osotasun fisikoa babesteko berariazkoak ez diren uniformeak eta laneko arropa arrunta.
- b) Sorospen eta salbamendu-zerbitzuetako ekipoak.
- c) Militar, polizia eta ordena-zerbitzuetan erabiltzen diren norbera babesteko ekipoak.
- d) Errepideko garraiolariak erabiltzen dituzten norbera babesteko ekipoak.
- e) Kirol materiala.
- f) Autodefentsa eta disuasio materiala
- g) Molestien arriskuak eta faktoreak detektatu eta seinaleztatzeko baliabide eramangarriak.

**OHARRA:** Norbera babesteko ekipoak hautatzeko eta erabiltzeko prozedura azalduko da jarraian.

## NORBERA BABESTEKO EKIPOAK (NBEAK) HAUTATZEKO ETA ERABILTZEKO PROZEDURAK.

### 1.- XEDEA.

Norbera babesteko ekipoak (NBEak) .... (izena) arrantza-ontzian behar bezala hautatu eta erabiltzeko jarduketa metodoa zehaztea da prozedura honen xedea.

### 2.- IRISMENA.

Babes kolektiboko bitarteko teknikoekin edo lana antolatzeko neurri, metodo edo prozedu-ekin kendu ezin izan den arriskuak eragiten badio langilearen segurtasunari eta osasunari lanpostu jakin batean, .... (izena) arrantza-ontzian lanpostu horretan lanean diharduen langile orori aplikatuko zaio prozedura hau.

### 3.- DEFINIZIOAK.

1407/1992 Errege Dekretuaren arabera NBEtzat joko da osasun edo segurtasunaren aurka-ko arrisku batetik edo hainbat arriskutatik babesteko helburuarekin pertsona batek erabili edo jantzita eramaten duen edozein baliabide edo bitarteko. Hauek ere NBEtzat joko dira:

- a) Aldi berean gerta litekeen arriskutik edo gerta litezkeen arriskuetatik pertsona babesteko fabrikatzaileak solidarioki elkartutako baliabide edo bitartekoek osatutako multzoa.
- b) Pertsona batek jarduera bat burutzean baliatu edo jantzen duen bitarteko edo baliabide babesgarri solidarioa, ekipo ez babesgarri individual batekiko disoziagarria edo ez deroga-  
garria.
- c) NBEaren osagai aldagarriak, ondo funtzionatzekoak ezinbestekoak direnak eta berariaz NBE horrentzako erabiltzen direnak.

Kanpoko bitarteko osagarri batekin lotzeko NBEarekin batera saltzen den edozein konexio sistema NBEren zatitzat joko da, nahiz eta arrisku batek edo gehiagok irauten duen denbora guztian zehar erabiltzaileak etengabe konexio sistema hori berarekin ez eraman edo erabilgarri ez izan.

## 4.- ERREFERENTZIAK.

- Laneko Arriskuen Prebentzioko 31 /1995 Legea.
- 1407/1992 Errege Dekretua, norbera babesteko ekipoak Europako Batasunaren baitan merkaturatu eta libreko zirkulatzeko baldintzei buruzkoa.
- 773/1997 Errege Dekretua, arrantzaleek norbera babesteko ekipoak erabiltzeari dagozkion gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenei buruzkoa.
- 1216/1997 Errege Dekretua, arrantza-ontzietan laneko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenei buruzkoa.

## 5.- ERANTZUKIZUNAK.

Armadorearen erantzukizuna da NBEak behar bezala hautatzea, era kontrolatuan banatzea eta lanean zuzentasunez erabil daitezen zaintzea.

Halaber, eguneratuta izango du bere arrantza-ontzian edo ontzietan beharrezko NBEen zerrenda eta arrantza-ontziko langile bakoitzari dagokion NBEa esleitu eta entregatu izanaren erregistroa ere bai.

Laneko Arriskuen Prebentzioko Erakundeak aholkatuta, bere arrantza-ontzian edo ontzietan beharrezkoak diren NBEen katalogoa egin eta eguneratuta mantendu behar du armadoreak. Bestalde, Arrantza-patroiei aholkuak eman beharko dizkie, arrantzaleek NBEak behar bezala erabil ditzaten.

Aurreko guztiaz gainera, NBEen fabrikatzaileek eta banatzaileek emandako dokumentu teknikoak artxibatu egingo dira.

## 6.- AZALPENA.

### 6.1.- Jarduketa prozedura.

Lanpostuko arriskuak babes kolektiboko bitarteko teknikoekin edo lana antolatzeko neurri, metodo edo prozedurekin behar adina mugatu edo erabat kendu ezin direnean bakarrik erabili behar dira norbera babesteko ekipoak.

### 6.2.- NBEaren beharra detektatzea.

Modu hauetan detekta daiteke NBEaren beharra:

- Arriskuen ebaluazioa.
- Langileak berak eskatuta, bai norberaren ekimenez edo bai NBEa hondatu edo galdu zaio-lako.

Lanpostu bakoitzari dagozkion beharrezko NBEen esleipena 1. Eranskinaren gisako orri batean adieraziko da (armadorearen Laneko Arriskuen Prebentzioko Erakundeak egindako lanpostuen arrisku ebaluazioan adierazitakoaren arabera izango da esleipen hori).

### **6.3.- NBEaren mota hautatzea.**

Laneko Arriskuen Prebentzioko Erakundeak aholkatuta, lanpostuari esleitutako ekipoen artean langilearentzat egokiena dena hautatuko du armadoreak. Gutxienez baldintza hauek kontuan hartuko dira NBEak hautatzeko prozesuan:

- NBEa lanpostuaren baldintzentzat egokia izatea.
- NBEa langilearen baldintza anatomikoentzat, baldintza fisiologikoentzat eta osasunarentzat egokia izatea.
- Langileak eraman behar dituen beste NBE batzuekin bateragarria izatea.
- Araudietako eskakizunak betetzea (CE ikurra, Adostasun adierazpena, Fabrikatzailearen informazio foiletoa, etab.).

Armadoreak bere ontziarentzat edo ontzientzat beharrezkoak dituen NBEen katalogoaren laguntzarekin hautatzen da NBEa; 2. eranskinean dokumentatzen da eta 3. eranskinean (esleitu/entregatutako NBEen zerrenda) erregistratzen da.

NBEaren hautaketa aurretik erregistratuta badago, hau da, lehendik langileak lanean erabiltzen zuen NBEa bat ordeztu bada, ondoren azaldutakoa egin behar da zuzenean:

### **6.4.- NBEa banatzea eta entregatzea.**

Behin langileari esleitu beharreko NBEa hautatu eta erregistratu ondoren, banaketa fasera pasatzen da. Horretarako, armadoreak izendatutako pertsonak 4. eranskina bete eta sinatu behar du (NBEaren banaketa edo ordeztearen agiria), eta langileari agiri horren bi kopia emango dizkio, langileak berak NBEa/ak hartutakoan sina ditzan.

NBE bat eskatutakoan stock-ean halakorik ez badago, armadoreak izendatutako pertsonak ekipo hori banatzeko aukerarik badagoen ala ez zehaztu beharko du.

Stocken edo izakinen faltaren ondorioz langileak bere lanpostuari esleitutako beharrezko NBEak ezin baditu erabilgarri eduki, Arrantza-patroiak erabakiak hartu beharko ditu lanpostu horretan lan-jarduera segurtasunez burutzen dela bermatzeko.

### **6.5.- Utilización y mantenimiento del EPI.**

NBEa entregatzean, 2. eranskinetik hartutako jarraibideak idatziz ematen zaizkio langileari ekipoa behar bezala erabili eta manten dezan. NBE jakin bat erabiltzeko edota mantentzeko zaila bada, bai oso berriazkoa edo konplexua delako edo bai lanpostuan aldi berean NBE desberdinak erabili behar direlako, orduan Arrantza-patroiak erakutsiko dio langileari halako egoeretan nola jokatu behar duen, armadoreak xedatutako duen prestakuntza-prozedurarekin bat etorritik.

Arrantza-patroiak etengabe bermatu beharko du lanpostuan NBEak behar bezala erabiltzen direla eta haiek erabiltzea beharrezkoa dela.

Espresuki erabilera pertsonalekoak diren NBEak mantentzeko ardura arrantzalearena da eta ekipoak banatzean ematen diren jarraibideen arabera mantendu behar dira.

## 7.- ERANSKINAK.

1. eranskina: lanpostuetan NBEak erabiltzeko beharra.
2. eranskina: NBEen katalogoa.
3. eranskina: esleitu/entregatutako NBEen zerrenda.
4. eranskina: NBEen banaketa edo ordeztearen agiria.

# 1. Eranskina

## BEHARREZKO NBEen ESLEIPENA LANPOSTUKA

Enpresa: ..... Arrantza-ontzia: ..... Honek ordeztua: .....

Edizioa: ..... Berrikusi data hau baino lehen: ..... Edizio hau ordezten du: ..... Honek ordeztua: .....

NORBERA BABESTEKO EKIPOAK (NBE)										
LANPOSTUAK	Buru babesleak	Belarri babesleak	Begi babesleak	Aurpegi babesleak	Arnasbide-en babesleak	Esku eta beso-en babesleak	Oin eta hanken babesleak	Azalaren babesleak	Gorputz en-borraren eta abdoimenaren babesleak	Gorputz osoaren babesleak

## 2. Eranskina

### NBEen KATALOGOA

(NBEen izendapen generikoa).		
Edizioa: .....	Berrikusi data hau baino lehen: .....	Ordezitutako edizioa: .....
Edizioa: .....	Ordezpena egiten duen edizioa: .....	

(NBEa)		
Fabrikatzailea:	Argazkia:	
Banatzalea:		
Iraungitze data:	Lote zk.:	
1407/1992 Errege Dekretuak ezarritako gutxieneko betekizunak:		
UNE-EN arau aplikagarriak:		
Norbera babesteko ekipoaren ezaugarriak:		
Aplikazio eremua:		
Erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak:		
Oharrak:		



### 3. Eranskina

## ESLEITU/ENTREGATUTAKO NBEen ZERRENDA

Langileren izena: .....

ESLEIPENA				ENTREGATZEA			
Data	NBEa	Oharrak		Data	NBEa	Oharrak	

#### 4. Eranskina

### NBEak BANATU EDO ORDEZTU IZANAREN AGIRIA

Data:	Norbera babesteko ekipo berri baten banaketa?: Lehendik zegoen norbera babesteko ekipo bat ordeztzea?:
Arrantza-ontziaren izena:	
Langilearen izena:	

Kopurua	NBEa	Neurria	Entregatzea

SINADURAK	
Arduraduna	Langilea

OHARRA: behar bezala erabiltzeko eta maneiatzeko jarraibideak ematen dira NBE bakoitzarekin batera.

## NORBERA BABESTEKO EKIPOAREN ADIBIDEA.

Arrantzaleei segurtasuna eta erosotasuna emateko diseinatu den laneko arropa erakutsiko dizuegu jarraian. Body Climate System kontzeptua du jantzi honek; hala nola, gorputza lehor mantentzen du transpirazioa bermatuz eta gainera gorputza bero mantentzen du berotasuna barruan gordez. Bestalde, langilea babesten du eguraldi txarra egiten duenean.

Ekipoak hiru jantzi ditu: lehenengoa gorputza lehor mantentzen duten kamiseta, galtza eta galtzerdiz osatzen da; bigarrenak, berriz, era guztietako eguraldi txarraren aurka haize-babes gisa egiten duen mintza du; eta, hirugarrenak, salbamendu-txalekoa gehitzen dio petoari, eta, hartara, itsasora eroriz gero, kontziente nahiz inkontziente, txalekoa puztu egiten da ura ukitzean (ikus erantsitako argazkiak). 150 K-ko flotagarritasuna ematen du salbamendu-txalekoak.

Larrialdietan arrantzaleen segurtasuna handitzen duten beste bi osagai ere balia daitezke salbamendu-txalekoaren osagarri gisa: biziraupen jantziak eta irrati-transmisore pertsonalak (transmisore txiki batzuk dira eta sorospen zerbitzuei alerta seinalea bidaltzen die, kokalekuari dago-kionez nahiko zehaztasun emanez).

Galtza-petoaren gaineratik eramaten den uretako jaka.



Salbamendu-txalekoa duen galtza-petoa (tirante gorriak).



Bi jantzien xehetasun-irudia, sistema aktibatuta eta salbamendu-txalekoa puztu ondoren.



Uretako jakaren ikuspegia atzetik eta alde batetik, salbamendu-txalekoa aktibatuta duela.

Irrati-transmisore pertsonalarekin lotuta, "Gizona kareletik" delako zainketa sistema berria garatu da, eta itsasoko segurtasuneko sistema berri nagusia da. Oso erabilgarria da belan, estropadetan edo yateetan ibiltzen direnentzat, arrantzale profesionalentzat, zaletuentzat, urpekarientzat edo itsasoan ibiltzen den edonorentzat.

Eskumuturreko erloju arin, eroso, praktiko eta funtzio anitzeko honek barruan transmisore bat dauka, eta eskuz nahiz ura ukitzean automatikoki aktibatzean seinale bat bidaltzen duena bilaketa eta erreskateko larrialdietako nazioarteko frekuentzian (121,5 MHz). Seinale hori ontziak jaso dezake edo salbamendu-ontzi edo helikoptero batek, eta norabide hargailuen bidez doitasunez jakin daiteke non dagoen uretan galdutako pertsona.



"Gizona kareletik" delako irrati-baliza/irradi digitala

Ohiko irrati-balizen aldean erlojuak duen abantaila nagusia zera da: diseinu eta egiturari esker erabiltzaileek erloju normaltzat jotzen dutenez, egun osoan jantzita eramaten dutela. Hori horrela izanik, ezusteko istripu bat dela eta pertsona bat itsasoan galtzeko dramak eta arriskuak nabarmen egiten dute behera.

Erlojua tresna ezin hobea da istripuagatik edo erreskate-ekipoko kide gisa itsasoan dauden pertsonak non dauden jakiteko.

Uretan sartzean erlojua automatikoki aktibatzen da, baina eskuz ere aktiba daiteke bi botoi sakatuz.

Erlojua aktibatuta dagoenean, LED keinukari bat pizten zaio eta alarma entzungarri bat aktibatzen da, erlojua transmititzen ari dela adieraziz uretan dagoen pertsona lasaitzeko. Seinale hori Larrialdietako Hargailu edo Norabide Hargailu batek hartuko du, eta orduan ontzian alarma aktibatuko da edo kartografia sistema elektronikoko bateragarri batean aurkeztuko da.

“Gizona kareletik” sistema osatzeko, ontzian Larrialdietako Hargailua edo Norabide Hargailua instalatu behar da.

### Larrialdietako Hargailua

“Gizona kareletik” delako zaintza sistema erabiltzen duen Larrialdietako Hargailua da. 121,5 MHz frekuentzian erabiltzen da, larrialdietako nazioarteko frekuentzian, alegia. Erlojuarekin batera erabiltzen bada, tripulazioari konfiantza ematen dio, uretara eroriz gero horren berri emango duen seinalea bidaliko delako.



Larrialdietako Hargailua

### Norabide Hargailua

Erlojuarekin batera erabiltzen da Norabide Hargailua. Azken diseinuko unitatea da eta larrialdietako 121,5 MHz frekuentzia edo probako 121,65 MHz frekuentzia erabiltzen du.


Norabideari dagokionez atzerapenik badago, adierazi egiten da seinalean jasotzean, seinalearen mailaren adierazpenarekin batera. Ikusmen eta entzumenezko alarmak informazio sinplea ematen du, uretan dagoen pertsona azkar bilatu eta erreskatatzeko.



Uretan dagoen pertsona bilatzeko norabide hargailua



# IRRATI-BALIZA ERLOJUAREKIN EGINDAKO SALBAMENDU LANAREN DIAGRAMA



Tripulatzailleak lokalizatzeko norabide hargailuaren antena, itsas mailaren gainetik 7 metrora



**OSALAN**

5. atala:  
**Larrialdietako  
betebeharren eta  
kontsignen koadroa**

**Erakunde autonomiaduna**  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Justizia, Lan eta**  
**Gizarte Segurantzza Saila**  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

<p>Makinen bigarren arduraduna.</p>	<p>-- Makinen buruari lagunduko dio eta beharrezkoa bada ordeztu egingo du.</p>	<p>-- Makinen buruari lagunduko dio.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ateak eta aireztatzak itxiko ditu.</li> <li>- Erregai balbulak itxiko ditu.</li> <li>- Suhiltzaile jantzia eramango du jantzita.</li> </ul>	<p>- Makinen buruari lagunduko dio.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Makinen buruari lagunduko dio.</li> <li>- Erreskate-txalupan sartuko da, hala agintzen bazaio.</li> </ul>
<p>Kontramaisua.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kapitainaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Suteen kontrako brigada zuzenduko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kapitainaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Suteen kontrako brigada zuzenduko du.</li> <li>- Sutea ez dela hedatzen egiaztatuko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kapitainaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Alerta egongo da erreskate-txalupa prestatu eta bertan ontziratzeke operazioa zuzentzeko, halakorik egiteko agintzen bazaio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Erreskate-txalupa prestatzeko operazioan lagunduko du.</li> <li>- Biziraupen jantzia eramango du jantzita.</li> <li>- Erreskate-txalupa ontziratuko eta pilotatuko du.</li> </ul>
<p>1. marinaia</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Suhiltzaile jantzia eramango du jantzita.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Makinen gelatik gertuen dagoen itzalgailu egokia hartu eta erabiliko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Erreskate-txalupan sartuko da, hala agintzen bazaio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Erreskate-txalupa prestatzen lagunduko du.</li> <li>- Biziraupen jantzia eramango du jantzita.</li> <li>- Erreskate-txalupan sartuko da, hala agintzen bazaio.</li> </ul>
<p>3. marinaia</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Suteen kontrako mangera maniatu eta konektatuko du gertueneko ahoan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Jangelako itzalgailua hartu eta erabiliko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Erreskate-txalupa prestatzen lagunduko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Sukaldera joan eta janaria eta ura hartuko ditu.</li> <li>- Salbamendu-txalekoa jantziko du.</li> <li>- 1. baltsan ontziratzeke gunera joango da eta agintzen diotenean ontziratuko egingo da.</li> </ul>

<p>4. marinela</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Gertueneko itzalgailu ego- kia hartu eta erabiliko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Ababorreko pasabideko itzalgailua hartu eta erabiliko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren agin- duak beteko ditu.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango da.</li> <li>- Pertsona uretara eroritako puntura begira egongo da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko ditu</li> <li>- Sukaldera joan eta janaria eta ura hartuko ditu.</li> <li>- Salbamendu-txalekoa jantziko du.</li> <li>-1. baltisan ontziratzekeo gunera joango da eta agintzen dlotene- an ontzia jaitisiko du.</li> </ul>
<p>5. marinela</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Gertueneko itzalgailu ego- kia hartu eta erabiliko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Istriborreko pasabideko itzalgailua hartu eta erabiliko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren agin- duak beteko ditu.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango da.</li> <li>- Pertsona uretara eroritako puntura begira egongo da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Manta berogariak hartuko ditu.</li> <li>- Salbamendu-txalekoa jantziko du.</li> <li>-2. baltisan ontziratzekeo gunera joango da eta agintzen dlotene- an ontzia jaitisiko du.</li> </ul>
<p>6. marineletik 10. era</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko dituzte.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko dituzte.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren agin- duak beteko dituzte.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango dira.</li> <li>- Pertsona uretara eroritako puntura begira egongo dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko dituzte.</li> <li>- Salbamendu-txalekoa jantziko dute.</li> <li>-1. baltisan ontziratzekeo gunera joango dira eta agindutakoan ontziratuko dira.</li> </ul>
<p>10. marineletik 15. era</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko dituzte.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko dituzte.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren agin- duak beteko dituzte.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango dira.</li> <li>- Pertsona uretara eroritako puntura begira egongo dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko dituzte.</li> <li>- Salbamendu-txalekoa jantziko dute.</li> <li>-2. baltisan ontziratzekeo gunera joango dira eta agindutakoan ontziratuko dira.</li> </ul>

Sukaldaria	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontramaisuaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Ontziaren bizkarreko bilkura gunera joango da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrantza-patroiaren aginduak beteko ditu.</li> <li>- Salbamendu-txalekoa jantziko du.</li> <li>- 1. baltisan ontziratzeke gunera joango dira eta agindutakoan ontziratuko egingo da.</li> </ul>
SEINALEAK.				
Almaren ohiko tinbreekin edo ontziaren sirenarekin egingo dira eta behar adina errepikatuko dira.				
SUTEA	Seinale luze bat. -			
LARRIALDIA	Zazpi seinale motz eta ondoren bat luzea. ●●●●●●●● -			
UZTEA	Bi seinale motz 15 segundotan zehar errepikatuta. ●●●●●●●● -			
SALBAMENDUA		EKIPOA		
		SUTEEN KONTRAKOA		
		<ul style="list-style-type: none"> <li>2 sute-aho (suteen kontrako ahoak).</li> <li>3 mangera.</li> <li>5 itzalgaile eramangarri makinen gelan (hauts lehorrekoak).</li> <li>5 itzalgaile eramangarri pasabideetan (hauts lehorrekoak).</li> <li>2 itzalgaile CO2 motakoak makinen gelan.</li> <li>1 itzalgaile CO2 motakoak sukaldean.</li> </ul>		
		<ul style="list-style-type: none"> <li>1 erreskate-txalupa.</li> <li>3 biziraupen jantzi.</li> <li>2 salbamendu-baltsa.</li> <li>13 salbamendu-txaleko.</li> <li>4 salbamendu-aro.</li> </ul>		
		<ul style="list-style-type: none"> <li>Suteen kontrako CO2 motako sistema finkoa, makinen gela urez betetzen denerako.</li> </ul>		



**OSALAN**

## 6. atala: Prestakuntzako eskuliburua

**Erakunde autonomiaduna**  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Justizia, Lan eta  
Gizarte Segurantzza Saila  
Departamento de Justicia,  
Empleo y Seguridad Social

Torremolinos-eko protokoloa, VIII. kapitulua (Larrialdietarako kontsignak, deiak eta aldizkako ariketak), 3. araua (prestakuntza eta ontzia uzteko ariketak), 4 (Prestakuntzako eskuliburu), a).

Jangela bakoitzean eta joko edo denbora-pasako gela bakoitzean, edo tripulazioaren kabina bakoitzean, prestakuntzako eskuliburu bat egongo da.

Prestakuntza liburuan, zeinak hainbat liburuki izan baititzake, ahal den neurrian modu argian eta irudiekin erakutsi beharko dira ontziaren salbamendu elementuak eta bizirauteko metodorik onenak.

Eskuliburuan agertu beharrean ikus-entzunezko baliabideen bidez erakutsi ahal izango da informazio horren edozein zati.

Ondorengo puntuei buruzko azalpen xehatuak eman beharko dira:

- 1.- Salbamendu-txalekoak eta urperatzeko jantziak (biziraupenekoak) nola jantzi, egoki den moduan.
- 2.- Esleitutako postuen bilkura.
- 3.- Nola ontziratu biziraupen eta erreskate-txalupetan, nola jarri ur gainean eta nola ireki ontziaren albora.
